

Gomendioak Gerrako kontakizunetatik bakerako memorieta

Donostia 2022ko
abenduaren 17an



Bake
prozesua
indartzeko
Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso
de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus
de paix

Social Forum
to promote the Peace process

Sarrera

Memoriaren esparrua beti da delikatua indarkeriazko gatazkaren osteko edozein prozesutan. Gure kasuan ere, berezko ezaugarriak izan dituen indarkeria-ziklo eta konponbiderako-prozesu bat izanik, oso gai sentsiblea da.

Foro Sozial Iraunkorrek modu diskretuan zein publikoan landu du memoriaren esparrua. Modu diskretuan 2019tik, bi prozesurekin: «Kontakizunen Foroa» Euskal Autonomia Erkidegoan eta «Memorien Elkarrizketa» Nafarroako Foru Komunitatean. Bi elkarrizketa esperientzia izan dira, oso diskretuak. Horietan, tradizio politikoak eta ibilbide pertsonalak oso desberdinak dituzten 20 pertsonak hartu dute parte. Parte hartzaileen artean ETakoak izandakoak, bakearen aldeko ekintzaileak (urte haietakoak eta gaur egungoak), sindikalistak, feministak, akademikoak eta arlo honetan erantzukizun instituzionalak izan zituzten pertsonak zeuden.

Modu publikoan, hainbat tresnaren bidez, hala nola «Sufrimenduaren mapa integrala» eta «Ustekabeen Topo - Diálogos improbables». Azken ekimen hori duela urtebete jarri zen abian. Elkarrizketa horietan Boko Haram, Libano, Kolonbia eta Irlandaren nazioarteko esperientziak aztertu ziren, eta lau topaketa antolatu genituen Bilbon, Iruñean eta Gasteizen. Esperientzia horien helburua beti izan da konfiantzazko espazioak sortzea, eztabaida lasaian, errespetuan eta soseguan oinarrituta, indarkeria-zikloaren testuinguruan gertatutakoari buruzko bizipen eta interpretazio desberdinak dituzten pertsonen beren ikuspegiak eta zergatiak partekatzeko.

Azpimarratu behar da elkarrizketa horiek ez direla izan azken hilabeteetan esparru horretan egin diren bakarrak, eta Foro Sozial Iraunkorra ez dela izan era horretako prozesu bat ikuspegi inklusiboarekin abiarazi duen bakarra. Bakearen aldeko erakundeek edo tokiko erakundeek antolatuta, beste topaketa egin dira antzeko helburuekin.

Sei biktimek eta historialari erreferentzialesk elkarri entzunez egin duten prozesu diskretua ere nabarmendu nahi genuke. Prozesu horren bukaeran, «Begiradak, memoria eraikitzeko oinarri partekatuak» dokumentua argitaratu berri dute.

Foro Sozialaren iritziz, aipatutako ekimen guztiek ekarpen garrantzitsua egin diote bizikidetzaren demokratikoa eraikitzeko «errei zentrala» deitzen dugunari. Gure ustez, esparru horretan metatutako esperientziak beste agertoki batera hurbiltzen gaituzte eta urrats sendoak ematea ahalbidetzen dute.

Alde horretatik, bat gatoz «Begiradak» dokumentuaren diagnostikoarekin, hau dioenean: *«Euskal gizarteak bere buruarengan konfiantza handiagoa du orain eta uste du gure iragan hurbilaren berrikuste kritikotik eta autokritikotik abiatuta, bizikidetzaren demokratikorako eredu sendoa baten eraikuntzan sakontzeko gutxienezko baldintzak eta adostasuna badaudela».*

2013an egin zen lehen Foro Sozialean adostutako gomendioetako bat memoriari buruzkoa zen:

«12.- Kontatzeko eta gogoratzeko era ezberdinak erraztea gomendatzen dugu, gertatutakoa ukatu gabe, sektore sozial eta politiko guztietan autokritika bultzatuz eta egindako akats larriak aintzatesteko jardun zintzoa bultzatuz. Ildo honetatik, biktima eta giza eskubideen urraketa guztien datu-base ofizial, publiko eta osatu bat egitea premiazkoa da, galdu edo lausotu aurretik jazotakoaren memoria gordetzeko».

2016an sortu zenetik gainerako hiru lan-ardatzetan (armagabetze zibila; presoak, iheslariak eta deportatuak; eta egitarako eskubidea) egin duen bezala, Foro Sozial Iraunkorrak hamar gomendio aurkeztuko ditu gaur, «Memoria kritiko inklusiboa» izeneko ardatz honen inguruan.

Foro Sozial Iraunkorraren gomendioak

1. Entzuteak memoria eraikitzeke abiapuntua izan behar du

Lehenengo pausoa, oroimen ariketa inklusiboa eta kolektiboa izatea bermatuko duena, elkarri entzutea da. Zintzo eta enpatikoki entzutea. Gure aurreiritziak alde batera utzita entzutea, hizketan ari denari gureak bezalako sentimenduak eta gako emozionalak dituen norbait bezala begiratzea, bizikidetzan aurrera egiteko antzeko borondatea duen norabait bezala.

Elkarrizketa zintzoaren garrantziaz jabetuta, begirunez, arretaz eta besteari irekita entzutea **gomendatzen dugu**.

2. Bakerako memoriak eraiki behar dira, ez gerra-kontakizunak

Gizarte konplexu eta plural batek ez du izan behar bere buruari buruzko kontakizun bakarra, nahiz eta, memoriadun etorkizuna eraikitzeke, iragana eta oraina irakurtzeko elementu garrantzitsuak parteka ditzakeen eta partekatu behar dituen. Ikuspegi bat bera ere ez da guztiz objektiboa, bakoitzak beste begirada edo ekarpen bat behar du, hori ere neurtua, bakoitzarenak baino puzzle partekatuagoa, objektiboagoa eta osoagoa osatzeko, beti berrikuspenerako irekia.

Akatsa da esatea kontakizun jakin bat ezartzeak balio dezakeela bizikidetzan demokratikorako agertoki hobea eraikitzeke. Metatutako esperientziak erakusten digu iraganeko dinamika horiek indarkeriaren zikloari buruzko kontakizun bateraezinak dituen gizarte batera eramango gaituztela, etorkizuneko proiektu komun bat eraikitzeke zailtasunak izango dituen.

Kontakizun bakar bat inposatzeko edozein asmo baztertzea **gomendatzen dugu**. Kontakizun bakar horrek, egiaztatu den bezala, gizartean eta politikan krispazio esparru berriak sortzen ditu, eta are gehiago eztabaida politikoaren polarizazio arriskutsu garaian.

3. Memoriak poliedrikoa izan behar du: memoria indibidualen eta kolektiboen batura

Memoria pertsona bakoitzaren bizipenetan eta esperientzietan oinarritzen da, pertsona bakoitzak bizi zuena eta gordetzen eta transmititzen duena. Egiazkoa da gertatu ziren gauzak direlako, eta ukiezina da sufrimendua eta oroimena pertsona bakoitzaren alderik intimonean daudelako; hitzak, oroitzapenak, amesgaiztoak edo itxaropenak direlako.

Beraz, memoria poliedrikoa eta esanahi anitzekoa da. Gure emozioen iragazkiarekin bizitako eta ber-bizitako gertaerek osatzen dute, eta, horren ondorioz, gure oroitzapenak desberdinak dira, nahiz eta esperientzia bera izan, adibidez, indarkeriazko gertaera bera bizi izana. Eta banakako memoriak batzen dira: familia-memoria, talde-memoria, herri-memoria, komunitate-memoria, herrialde-memoria...

Oroimen indibidual eta kolektiboen batura hori onartzen eta errespetatzen dela zaintzea **gomendatzen dugu**; mikrokontaketek izan beharko lukete memoria plural bati egin beharreko ekarpen nagusiak.

4. Memoriak autokritikoa izan behar du

Gurea bezalako gizarte anitz batean, kontakizun ezberdin ugari elkarrekin bizi beharko dira. Helburu horrekin, kontakizun guztiek dute lekua, pertsona guztiek dute adierazteko eskubidea, nahiz eta kontakizun bakoitzak bere iraganari buruzko begirada kritiko eta zorrotza izan behar duen, autojustifikaziotik urrun.

Egoera horiei guztiei aurre egin behar zaie alde bakoitzaren, aktore bakoitzaren, erantzukizunetik. Eta erantzukizun bakoitza berezkoa eta besterenezina da. Kontua ez da kontakizunik zuzitzea. Kontua ez da gertatutakoa alde batera uztea, ezta erantzukizun horiek lausotuko dituen kontakizun nahasia sortzea ere.

Beraz, berriro ez errepikatzeko bermea izango den memoria eraginkorra izan dadin, minez eta sufrimenduz eraikitako memoria horiek, gertakari eta ondorio pertsonalak dituen, jarrera autokritikoa izatea **gomendatzen dugu**, gertatutako ezer alde batera utzi gabe.

5. Memoriak ez du testuingurua ahaztu behar

Ez da komeni iragana orainaldiko parametroetatik aztertzea. Memoriak testuinguruan kokatu behar dira. Pertsona bakoitzak egin edo bizi izan dituen gertaeren deskribapen horiek gertatu ziren testuinguru soziala, politikoa eta kulturala barne hartu behar ditu.

Nolanahi ere, bizikidetzan aurrera egin nahi bada, ez dira onartuko edozein biktimaren berbiktimizazioa ekar dezaketen ekintzazko eta hitzezko jarrerak.

Kalteak, horien ondorioak, eragindako mina... gertatu ziren testuinguruetan aztertu ahal izatea **gomendatzen dugu**, eta horrek ez du inola ere esan nahi justifikagarriak direnik.

6. Memoriak inklusiboa izan behar du

Funtsezkoa da, gertatutakoaren irakurketa kritiko eta autokritikoan oinarrituta, oroimenaren eraikuntza inklusiboa izatea eta gizarte-kohesioari laguntzea, oraindik gizarte gisa definitu behar dugun etorkizuneko proiektu kolektibo horri ekarpenak eginez. Bazterketak etorkizuneko gatazken hazia dira.

Kontakizun inklusibo bat egiten ahalegintzea **gomendatzen dugu**, gertatutakoaren berri eman dezan gertakari guztiak eta begirada guztiak barne hartuta daudela bermatuz; horrela, kontakizun horretara hurbiltzen denak elementu guztiak eskura izango ditu bere iritzia osatzeko, eta modu aktiboan parte hartu ahal izango du gertatutakoa berriro ez gertatzeko oinarriak ezartzen.

7. Memoria ez da nahastu behar historiarekin, ez kontakizunarekin

Kontakizunak, memoriak eta historiak ez bezala, egun baino objektiboagoa izan beharko luke. Kontakizunaren haria gertakariak izan beharko lirateke: hilketak, bahiketak, torturak, mehatxuak, espetxeratzeak, jazarpenak, difamazioak, estortsioak, lege aldaketak, giza eskubideen urraketak..., elkarrizketak, porrotak, arrakastak... izan ziren. Eta gertaera horiek guztiak bere erara gogoratzen eta kontatzen ditu protagonista izan zen pertsona edo erakunde bakoitzak.

Kontakizun bakarraren ezarpena bultzatzen dutenek memoria eta kontakizuna batu nahi dituzte narratiba bakar bat sortzeko; narratiba horrek, beraien ustez, nagusia izan beharko luke, *mainstreama*.

Azken urteetan alor horretan metatutako esperientzietatik abiatuta, memoria eta historia kontakizunetik bereiztea **gomendatzen dugu**.

8. Memoria modu dialogikoan eraikitzen da

Elkarrizketaren kulturari balioa eman behar zaio memoria inklusiboa eraikitzeko. Elkarrizketa horrek interpelatu egiten gaitu, errealitatea konplexutasun handiagoz ulertzen eta bizi garen espazioen aniztasuna balioesten laguntzen digu. Giza harremanak erdigunean jartzen dituen elkarrizketa, konfiantza eraikitzen, emozioak adierazten eta sentimenduekin konektatzen laguntzen duena.

Elkarrizketa ez da ez negoziatzea ez eztabaidatzea, baizik eta 'zu' eta 'haiek' izatetik 'gu' izatera pasatzen lagundu behar diguna. Elkarrizketan, bestea epaitzea alde batera utzi behar da, pertsona bakoitzaren ideologiatik eta errealitatearen interpretaziotik harago. Aurre-epaitzen baino gehiago galdetzen saiatu behar da, hitz egiten baino gehiago entzuten saiatu behar da.

Azken batean, elkarrizketa besteen memoriak norberarengan integratzeko tresna da.

Desberdinen arteko topaketa-prozesuak bultzatzea **gomendatzen dugu**, elkarrizketa eguneroko praktika gisa finkatzen laguntzeko gatazkan dauden gizarteetan, aniztasunean harremanak izaten ikasteko.

9. Biktinek memoriaren politiken erdian egon behar dute

Era berean, bizipenak eta ikuspegi pluralak partekatzeko prozesuak biktimen beharrei erantzuten lagundu behar du, egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubide besterenezinaren esparruan, biktimagile edozein izan dela ere. Biktima guztiak aitortuak izan behar dira inolako tratamendu asimetrikorik gabe.

Biktimen testigantzak funtsezkoak izan dira gure prozesuan, eta giza eskubideen urraketan biktimen arteko topaketei esker (2007an egin zen Glencree prozesutik 2022ko azaroan Nafarroako Parlamentuan egin zen topaketa arte) gatazka humanizatzea ahalbidetu da.

Biktimak, biktima guztiak, memoriaren politiken eta horiek elaboratzen doazen prozesuen ardatz izatea **gomendatzen dugu**.

10. Memoriaren helburuak berriro ez gertatzeko oinarriak finkatzea izan behar du

Ahalegin kolektiboa eskatzen duen erantzukizun baten aurrean dago gure gizartea. Errealitate dinamikoa da. Eta memoria gizarte-ariketa partekatua da, bizikidetza demokratikorako bidea irekitzen laguntzen duena.

Ariketa politikoa da, funtsezkoa gizartea demokratikoki kohesionatzeko. Nolabaiteko harmonia soziala adierazten du, esparru politiko berean elkarrekin eta modu baketsuan bizi ahal izatea, beti gizartean sortuko diren gatazkak prebenituz edo arinduz, eta gertatu ziren eta, askotan, oraindik ere irauten duten indarkeriak antidotorik onenarekin arinduko direla bermatzen saiatuz: giza eskubideak, eskubide sozialak, zibilak eta politikoak, pertsona guztientzat.

Eskubide horiek bermatzea ere gizarte gisa bizikidetza demokratikorako eraikitzen ari garen memoriaren ardatza izatea **gomendatzen dugu**.



Bake
prozesua
indartzeko
Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso
de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus
de paix

Social Forum
to promote the Peace process